

Estilo-baliabideak

Baliabide fonikoak	
Onomatopeia	Natura eta inguruko hotsak edo soinuak imitatzea. «Ota txoria: trik-trak-trak... Ota-txoria: ma-sus-trak (...)» (Bitoriano Gandiaga)
Aliterazioa	Hotsak eta silabak hitz andana batean errepikatzean sortzen den efektu akustikoa. «Minez dozu barrena, / negarrez bihotz, / bihotz barruan dozu / arantza zorrotza.» (Lauaxeta)
Similikadentzia	Esaldi batean edo esaldi segida batean atzizki edota deklinabide berbera, edo antzeko doinua duten hitzak elkarren ondoan ipintzea «iluna jantzi zuen, kapa bat bezain luzea eta leuna, beruna eta ahula.»
Kalanbur	Jarraian doazen hitzen silabak lotuz edo hitz bat zatituz hitz berriak sortzea. «...esperantzaren bustia / ur hatsak / urratsak» (Itxaro Borda)
Baliabide semantikoak	
Metafora	Elementu biren identifikazioa beraien antzekotasunen batean oinarriturik. «Argindar kableek airean, osatzen duten pentagraman.» (Pako Aristi)
Konparazioa	Elementu biren alderaketa, elkarren arteko antzekotasuna agerian geratzen delarik; horretarako, konparazioko lotura-elementuren bat egon behar da. «Iguelen guisan mugitzen ditu / Oiñ-beso leun liraiñac» (Patziku Perurena)
Metonimia	Ideia edo osagai biren arteko erlazioa era honetako loturaren baten bidez eratzea: zatia-osotasuna, edukitzailea-edukia, egilea-obra. «Sekula ez du nire bihotzak horren atsekabe handirik sentitu»
Sinestesia	Sentzumenei berez dagokien gaitasunaren ordeztuak besteren bat atxekitzea. «...ixiltasunak / zulatu egin dizkit belarriak / nota hautsien egarri hutsez» (Omar nabarro)
Antitesia	Aurkako esanahia duten ideiak zein perpausak elkartzea: «Kementsu / haiz ahul / Alai / haiz triste. / Bigun / haiz gogor.» (Gotzon Aleman)
Sinonimia	Esanahi bereko edo oso antzeko hitzak zein esaldiak elkarren ondoan ipintzea. «...gozo, bigun, maitegarritzko, dizdizari, beti keinuka eta (...)» (Txomin Agirre)
Hiperbolea	Ideiak neurrigabe handitzea koaliteteak edo ekintzak ezinezko bihurtu arte. «...mende oso bat iraganen dut, zure ondoan koblaka.» (Joseba Sarrionandia)
Hitz-jokoa	Edukiz eta formaz antzekoak diren hitzak elkarrekin jartzea, esaldi bitxi eta efektu bereziak sortuz. «...apatzen ditu tximeletak / loreak aupatuaz / apatuz (...)» (Andoni Salamero)
Pertsonifikazioa	Izaki ez-animatu edota ez-arrazionaleri giza koaliteteak eranstea. «(...) eta izarrek ez zioten goizerako bidea erakutsi (...)» (Luigi Anselmi)
Apostrofea	Izaki bizidun eta ez-bizidunei hitz egitea. «Gaua, zu zoaz / lertxunen zadorrak / mamiki gordetuz...» (Juan Ramon Madariaga)

Baliabide morfosintaktikoak

Hiperbatona	Hitzen ordena naturala aldatzea. «...bainan ea txalo bat / diguzuen ematen.» (Antonio Maria Labaien)
Kiasmoa	Hitz-bikote bi elkargurutzatzen dira ABBA eskemari jarraituz. «Joan zen uda / eta negua heldu da.» (Gabriel Aresti)
Anafora	Hitz bat edo gehiago bertso-lerro guztien hasieran jartzea. «Kantetan, horra hor txoritxoak / kantetan, horra hor bildotsak / kantetan, negua joan dela (...) (F. Arrese Beitia)
Kateamendua	Errepikapenaren bitartez lerroz lerroko lotura eratzea. «Hasieran eskua izan zen / Eskuak moldatu zuen ispilua: / ispiluak sorrarazi zuen izua: / Izuak erditu zuen moxorroa» (Omar Nabarro)
Epanadiplosia	Hitz bera bertso-lerro baten hasieran eta bukaeran ipintzea. «Oroitu nahi zaitut, oroitu (...)» (Migel Anjel Unanua)
Anadiplosia	Hitz bera bertso-lerro baten hasieran eta hurrengoaren bukaeran ipintzea. «(...) aire bat entzun nuen itsaso aldetik, / itsaso aldetik untzian kantaturik». (Balada herrikoia)
Erreduplikazioa	Kontzeptua azpimarratzeko errepikapen soila. «Gau luzea, gau latza / gau izar gabea (...)». (Lizardi)
Enumerazioa	Hitz desberdinen errepikapen hutsa da, kategoria gramatikal berekoak direnean. «Zeru, lur, egurats, gizon / nigana dut (...)» (Orixe)
Paralelismoa	Sintaxi egitura beraren errepikatzea. «(...) ertzagabeko itsasora, / aparrik gabeko hondartzara / bustidura gabeko uhainetara / hondar gabeko eremura (...)» (Patxi Ezkiaga)
Elipsia	Esaldiaren osagai bat edo batzuk ezabatzea. «Sagatsen begi ireki berri / iletsuak / errekastoen ibarretan / goiza laztantzen.» (Omar Nabarro)
Asindetona	Egitura sintaktikoa juntagailurik gabe agertzea. «...gorroto, bekaitz, harrokeri, / lizunkeriak gorazarre; / gerra heriotz, lapurreta (...)». (Nemesio Etxaniz)
Polisindetona	Juntagailuak erruz erabiltzea. «Bide txikiago bat ere badago eta gero ibaia eta gero arrainak eta txalupa asko» (Bernardo Atxaga)